

# ALTZA PORRU!

2010eko maiatza / 37. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

## MARTXAN DA FABOREZ 04 DISKOA

Faborez bildumaren barruan, martxan da laugarren alea. Aurreko lanen funtsari eutsita, **trikitilari gazteak pieza zaharrak jotzen** entzuteko parada emango du bildumaren laugarren ale honek ere. Eta izenak azaltzen duen moduan, **dantzarako piezak** bilduko ditu, sueltoan nahiz lotuan egitekoak.

Maiatzean zehar grabatuko da lana Hernaniko *Oh brother* estudioan Iñigo Egia teknikariaren laguntzarekin eta, gauzak ondo, **udazkenerako kalean izango da** Faborez 04 diskoa.

Honoko lau trikiti bikoteek osatuko dute lana:

- **Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo:** baltsa, pasodoblea, mazurka... hemengo zein kanpoko dantza loturako piezak joko dituzte.
- **Ander eta Aintzane Agirrebeña:** erreperitorio zabalak ekarriko dute diskora. Beren jaioterri den Eibarren usadioz kantatu izan direnak abestuko dituzte eta baita, soinujolea zuten aitona jotzen zituenak ere.
- **Ion Ansorregi eta Andoni Larrañaga:** Azkoitia inguruko trikitilari zaharrei ikasitako piezekin batera, rantxera baten bertsioa ere bildu dute lan honetarako.
- **Lutxurdio eta Aitziber Otegi:** hauek ere Urola inguruko uzta ekarriko dute lan honetara; grabazio zaharretan zein erromeriatan, batari eta besteari entzundako piezen bilduma.



Aurreko aleekin egin den moduan, diskoan bildutakoen aurkezpen **erromeria** ospatuko da. Aurten **Bergaran** izango da zita, **irailaren 18an**. Bertan, diskoan bildutako pieza guztiak joko dituzte bikoteek eta ondoren, norberak erabaki bitarte luzatuko den erromeria!

## BIZKAIKO TRIKITIXA EGUNA

Getxon ospatuko da Bizkaiko Trikitixa Eguna, maiatzaren 23an, igandez. Bizkaiko zein kanpoko trikitilarien topaketa honetarako, hauxe da prestatu den egitaraua.

- 12:00, trikitilariak eta eskolak Getxora heldu eta auzoetatik kalejirak hasiko dira
- 14:30, trikitilari eta eskolen topaketa Algortako Tellagorri plazan
- 15:00, bazkaria Algortako Zabala Eskolan
- 17:30, erromeria Triki ta ke taldearekin Algortako Tellagorri plazan

Bizkaiko Trikitixa Elkarteen oharra: Zuen eskola edo taldea zuek antolatutako autobusetan etorriko bada, eskertuko genizueke elkartean abisatuko bazenute. Hartara, autobusarekin noraino heldu eta non aparkatu azalduko genizueke.

Informazio gehiago [www.bizkaikotrikitixaelkartea.com-en](http://www.bizkaikotrikitixaelkartea.com-en) aurkituko duzue, bestela 665 716 390 telefonora deitu dezakezue edo e-mail bidez zuen zalantzak argitu ([bizkaia@trikitixa.net](mailto:bizkaia@trikitixa.net)).

**NON:** Getxon

**NOIZ:** maiatzaren 23an, igandez



## TRIKITILARI GAZTEEN GETARIAKO TXAPELKETA

Maiatzaren 29an, larunbatez, ospatuko da Trikitilari Gazteen Getariako XI. Txapelketa, Euskal Jai egunaren egitarauaren barruan.

Hona hemen txapelketan izena emateko **oinarriak**:

- **Adina:** 18 urte bitarteko gazteak (18 urtekoak barne)
- Bikote bakoitzak **3 pieza** jo beharko ditu:
  - 1. Trikitia
  - 2. Pot-pourria (gehienera, 7 minutuko iraupena izango du)
  - 3. Aukerakoa: Arin-arina, fandangoa edo porrusalda.
- Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu:
  - Piezen zailtasuna
  - Bat etortzea
  - Kantua
  - Dantzagarritasuna
  - Pandero jolearen lana
- Sei bikote sailkatuko dira
- **Baserritar jantziekin** agertzea derrigorrezkoa da.
- Sariak:
  - Aurrenekoentzat: txapelak, trofeoa eta 300 euroko ordainsaria
  - Bigarrenentzat: kopa eta 200 euroko ordainsaria
  - Hirugarrenentzat: 140 euroko ordainsaria
  - Gainerakoentzat: 90 euroko ordainsaria

**Oharra:** deialdia irekia denez, sei bikote baino gehiagok izena emanaz gero, **kanporaketa** egingo da egunean bertan. Izena emateko: 943-89 60 24

**NON:** Getarian, herriko plazan

**NOIZ:** maiatzaren 29an, larunbatez, arratsaldeko 17.30tan



## TRIKITI-KALEJIRA TRINTXERPEN

Trintxerpen (Pasaian) ospatzen den Musikaz Blai astearren barruan, trikiti-kalejira egingo da ekainaren 12an, larunbatez. Bertan Oarsoaldeako eta Txingudiko hiru musika-eskolak hartuko dute parte: Auntxa Trikitixa eskolak, Irungo musika eskolak eta Pasaiaiko musika eskolak.

Hona hemen egitaraua:

- 12:00, kalejira Trintxerpen barrena.
- 13:30, eskenatokian emanaldia.
- 14:30, luncha.

**NON:** Trintxerpen (Pasaian)

**NOIZ:** ekainaren 12an, larunbatez, eguerdian



## JUANITO BARRUTIA "ARNO" TRIKITILARIA HIL DA

Joan den apirilaren 4an zendu zen Juanito Barrutia "Arno" trikitilaria 76 urte zituela. Jaiotzez mutrikuarra zen arren, Eibarren egin zuen bizilekua eta taberna ere izan zuen herri erdian. Angiozarko itsuarekin soinu jotzen zertxo bait ikasi bazuen ere, bere kasa ikasi zuen gehien. Ez zen oso gazterik hasi erromeriatan, baina Eibar eta inguruan toki askotan jotakoa zen, bere semea teklatuan eta Ziolar baterian lagun zituela. Hainbat ezkontza alaitu zituzten elkarrekin, Arrate eta Urkiola inguruko jatetxeetan. Trikitixa Elkartek omenaldia egin zion 1987an Eibarren. Txikito de Mendaro eta Aizte, Arno eta Martxel, eta Ospas eta Sabin izan ziren omenduak.

# Disko berriak

## JOSEBA TAPIA

Bakarkako ibilbidean bosgarren lana grabatzen ari da Joseba Tapia. Ohiko taldearen aldean, haizezko instrumentu jotzailez inguratuta ari da lanean. "Soinu ezberdin bat lortzea" da helburua trikitilari lasartearren hitzetan. Edukiari dagokionez, lan monografikoa izango da. *Agur Intxorta maite* diskoan egin zuen bezalaxe, historiaren garai jakin batean kokatuko da lana: karlisten eta liberalen arteko liskarrak kontatuko ditu. Jonan Ordorika teknikariaren gidaritzapean ari da grabaketa lanetan Azkarateko estudioan. Gauzak ongi, udazkenean kaleratuko du Joseba Tapiak bakarkako disko berria.



## KUPELA: ARRISKUA MAITE

*Gau giro* eta *Pagotxa* diskoen arrakastaren ondotik, hirugarren lana kaleratzear da Kupela taldea: *Arriskua maite* izeneko diskoa. Xabier Alberdi "Zabale"-ren soinua, Anjel Larrañagaren ahotsa eta Berastegiren bateria prest dira plazak alaitzen jarraitzeko. Mikel Fernandez Krutzaga soinu teknikaria izan dute lagun taldearen hirugarren diskoa grabatzeko. Aurrekoen mamiari eutsiko dio lan honek ere: bertsoak eta trikitixak uztartutako euskal sen freskoa, umorez jantzita.

## ESNE BELTZA: NOA

Esne Beltzak aurki kaleratuko du taldearen bigarren lana: *Noa*. 17 kantuk osatutako lana, kultura gutxituen elkargune izango da, Esne Beltzaren festa, erritmo eta hizkuntza anitzez jantzita. Kantu bakoitzak bere izaera izango du, baina Xabi Solanoren soinuak indar handia hartuko duela aurreratu dute Baga-bigatik. Kolonbia, Mejiko, Jamaika, Palestina edota Kubako musikariak izan dituzte gonbidatu. Ion Garmendia "Txuriak" idatzitako hitzak, gaztelera, frantsesa eta ingelesera itzuliko dira.



## ARRAKASTARI EUTSI DIO ITZIARKO ERROMERIA EGUNAK

Iazko mahai-inguruaren eta erromeria egunaren arrakasta ikusita, aurten bigarenez ospatu dute Itziarren asteburu osoko egitaraua. Iazko arrakastari eustea lortuta, "datozen urteetan ere Itziarko Erromeria Egunari eusteko gogoz" daudela aitortu du Ion Ostolazak, Andutz Kultur Elkartearen antolatzaile lanetan ari den trikitilariak.

Antonio Buenetxea Txankarta soinu-jole itziartar famatuari egin zaio omen aurtengo egitarauan ere. "Ilgandero jotzen zuen Txankartak Itziarko erromerian eta jende andana biltzen zen bertara. Garai hartako erromeria gogora ekarri" nahi izan dutela azaldu du Ostolazak. "Erromeriak ziren aurreko belaunaldien sozializatorako bilgune garrantzitsuenetakoak. Gerra ondorengo garaietan hainbat herri, auzo eta bailaretako herritarren bilgunea. Eta horixe berreskuratu nahi izan dugu".

Apirilaren 30ean, ostiral iluntzez, mahai ingurua osatu zuten "Soinu Handia Erromerian" gaia aitzakia hartuta. Aitor Furundarena, Isidro Larrañaga, Joseba Tapia eta Karmelo Mendizabal aritu ziren hizketan. Apaizetxean bertan, erromerien inguruko argazki-erakusketa ere ikusgai izan zen.

Maiatzaren lehenarekin ospatu zuten egun handia: Erromeria Eguna. "Txistulariak, dultzaineroak, joaldunak, soinu-joleak, Itziarko Bertso Eskolako kideak... kalejira anitza izan zen, eta oso giro alai jarri zuten". Bazkaltzen 300en bat pertsona elkartu ziren eta arratsaldean, dantza izan zen nagusi. Ostolazaren hitzetan, "erromerian atse-denik gabe egin zuen dantza jendeak. Dantza eta dantza".



## GIRO PAREGABEAN JOAN DA DEBA-GOIENENKO TRIKITIXA EGUNA

Giro paregabea joan da aurten ere Deba-Goieneko Trikitixa Eguna. Joan den apirilaren 17an ospatu zen Soraluzen eta bailaratik bakarrik ez, Euskal Herriko beste hainbat txokotatik bildu ziren musikariak Soraluzera. Goizetik hasi eta iluntzera arte ez zen girorik falta izan! Goizean kalejira ibili ziren herrian zehar, oholtza gainean herri gonbidatu bakoitzak pare bat pieza eskaini zituen ondoren eta, bazkal aurretik, omenaldia egin zioten Jexux Bereziartua herriko pandero jolari (ikus bere hitzak GALBAHEA sailean). Eguerdia jota, frontoia bete jende izan zen bazkaritan: 600en bat pertsonak bazkaldu zuten mahai luzeen bueltan. Xero Xieteren erromeriarekin bukatu zen aurtengo Deba-Goieneko Trikitixa Eguna.

## GALBAHEA

- **Gurutz Aranaga** (Auntxaren semea, aita zuenaz): "Sakabi eta Elgetarekin batera, trikitixak egun Gipuzkoan duen presentziaren eragileetako bat izan zen eta, horrez gain, Iparraldera joan zen lehen trikitilaria..... Urte mordoan egin ditut nik kanpoan, Mallorkan, eta lasaitasun handia dut, aitak utzi gintuen egunean ni etxean, Urrestillan, nengoelako. Gogoan dut oraindik azken hatsa egin aurretik nola mugitzen zituen behatzak, trikitixa jotzen arituko balitz bezala..... Garizuma izaten zen egunik tristeena aitarentzat, ez baitzuen jotzerik izaten. Gaztea zenean, amak giltzapean gorde behar izaten zuen trikitixa"

(Noticias de Gipuzkoa, 2010-04-19)

- **Imanol Urkizu** (Orioko futbol taldearen ereserkia sortu izanaz): "Ez da enkargua izan, ezta horretarako bereziki egindako pieza ere. Pandero klaseak emateko abesti bat sortu nahian nenbilela, batik bat erritmoak jotzen ikasteko, kalejira bat lantzen hasi nintzen etxean. Horretan ari nintzela, doinuak lelo edo estribillo moduko zerbait zuela konturatu nintzen. Ondoren, ereserkia egin nezakeela pentsatu nuen, baina ezertan hasi aurretik, futbol elkartekeoi make-tatxo bat aurkeztu nien zirriborro gisa. Izan ere, ez nekien lehendik ere ereserkirik zuten ala ez. Haiek pozarren jaso zuten proposamena, eta halaxe hasi zen gutzia, bat-batean sortutako doinu batetik".

(Urola-kostako hitza, 2010-04-18)

- **Jexux Bereziartua** (pandero jole plaentxiatarrak esanak, Deba-Goieneko Trikitixa Egunean omenaldia jaso bezperatan): "neri inork ez zidan erakutsi panderoa menderatzen, Musika Eskolan ikasi izan banu, oin Beethoven beran maila eukiko nuke! Ez nuen inundik espero neri egingo zidatela omenaldia eta oso pozik nago".

(Pil-pilean aldizkaria, 2010-03-30)

- **Kepa Junkera** (*Habana Sessions* diskoaz): "Disko bati jartzen diozun janzkera ez da hain garrantzitsua, intenzioa edo asmoa baizik. Julio Pereirarekin egin nuen *Lau eskutara* hartan asko ikasi nuen. Askotan batek uste okerra du. Iruditzen zaio, jendez gero eta inguratuago egon, orduan ere seguruago sentitu behar duela. Ez du zertan hala izan. Aldian behin oso kitzikagarria da biluztasun musikal horri aurre egitea. Nire ibilbidean, disko zein zuzenekoetan izan dudak kolaboratzaile zerrenda oso handia da, baina gustuko dut gauza intimistagoak ere egitea, kasu honetan bezala. Nork daki, etorkizunean akaso neronek bakarrik egitea pentsa dezaket".

(Deia, 2010-04-05)

## ZESUMA

### SOINU TXIKIA, RUMBA ETA SUKALDEA

Carles Belda soinu joleak eta Alex Fernandez sukaldariak *Sintonia per a un arrós negre* emanaldia prestatu dute. Besteak beste, *Blat Segat* edota *Pomada* taldeetan aritua den soinu jole kataluniarraren musika mota gogokoena runba da, eta soinu txikiarekin jotzeko moldatu du. Gasteizen "Euskal Herria eta Herrialde Katalanak" kongresuaren harira, emanaldia eskaini dute Beldak eta Fernandezek.

### ARGAZKI ALTXORRA, SAN JOSETAKO JAIALDIAREN HARIRA

San Joseetako Trikiti Jaialdia antolatzeaz arduratzen den lan-taldeak **dokumentazio eta bilketa lan aparta** egin du aurtengo edizioaren harira. Trikitilari zaharrei galdezka, Azpeitiko baserrietan izandako soinu joleen ingurukoak arakatu dituzte. Hala, herrian garai batean soinu jotzen aritutako **36 trikitilari** aurkitu dituzte. Baserriz baserri, bakoitzaren jaiotetxera joanda, altxor handia lortu dute. "Hildakoen argazkiak-eta agertzen zirenean eta garai bateko kontuak gogora ekarri zirenean jendea hunkitu" egiten zela azaldu digu losu Arrizabalaga "Izer" trikitilariak. 36 trikitilari hauen argazkiak ez ezik, garai bateko agiriak eta pasadizoak bilduta, Azpeitiko soinu jole bakoitzaren biografia txiki bana osatu dute. "Nahiko azkar eta presaka egindako lana izan da, baina bilduma polita gelditu da. Horrek beste lan bat argitaratzeko balioko duen ikus-teke dago". **Bildutako 200 argazki inguru eman zituzten jaialdian.** Balio handiko bilduma hori Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak du orain jasota.

Gainerakoan, jaialdiaren balantze positiboa egin du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak: **700n bat lagun bildu ziren** Izarraitz pilotalekuko jaialdi hunkigarrian. Trikiti Jaialdiaren aurretik, Antonio Aranaga **Auntxa soinu-jotzailearen jaiotetxean, Urrestillan, oroigarria** jarri zuten udal-ordezkariek. Maria Aldalur Auntxaren alargunak agertarazi zuen oroigarria, hainbat senitar-teko eta trikitilarik inguratuta.